

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko azaroaren 23a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Ultzama • Eskualdean berriz ere autobus zerbitzua egotea lortu du emakume talde batek

Txuspo Poyo • «Istorio txiki asko dago nire obretan»

Gotorlekuan ezkutaketan



• ARGAZKIAK: JOXE LACALLE, MIKEL SAIZ ETA ASIER AZPILIKUETA

Zementu eta harrizko munstroa. Lur azpiko lubaki, harresi, garita eta ziegak eta galeria amaigabeak. Urteetan itxita egon da. Itxita dago. Eta, horregatik, batzuek uste dute Ezkabako XIX. mendeko gotorlekua ezezaguna egiten zaiela herritar gehienei. Bada, urteetan, Iruñeko eta inguruko herrietako ehunka gazte historia iluneko gotorleku barnean sartu dira, bai eta barruan nahi zutena egin ere: jolastu, margotu, suntsitu, maitatu, bazkaldu... Hori galarazteko edo, «monumentu» izaera eman diote berriki.

Leitza ●

Bertako musikaz blai

TRIKITIXA, PANDEROA ETA txalaparta Euskal Herriko musika ikurrak izan arren, badira beste hainbat soinu-tresna hagitz ezezagunak gure artean. Izan ere, gutxi batzuk ezagutzen dute txanbelaren edo burrunaren historia.

Gaur, arratsaldeko zortzietan, Leitzako Aurrera elkartera joaten den musikazale orok Euskal Herriko musika eta zenbait soinu-tresna ezagutu ahal izanen ditu Juan Mari Beltran musikari eta ikertzaileari esker. Gaurko emanaldian, hitzaldiak eta kontzertuak bat egingen dute, hau da, soinu-tresnak noiz sortu ziren eta non erabiltzen diren jakiteaz gain, berauekin egin daitekeen musikaz gozatu ahal izanen da.


Txanbela eta burruna

Txanbela, esate baterako, Zuberoan, Pirinioetako magalean erabili izan den dultzaina txiki bat da, eta gaur egun ia galdua dago. Juan Mari Beltranek azaldukoaren arabera, «hango artzainak izaten omen ziren jotzaile nagusiak. Txanbelak antzinako musikaren estiloa mantendu du, eta gaur egun gure herri kantutegian dugun musika era zaharrenetarikoa bat da, zaharrena ez bada. Horregatik, guretzat txanbela ez da soinu-tresna bat bakarrik, musika egiteko era bat ere bada. Zuberoan bada esaera bat, *txanbela bezala ari da kantatzen*. Txanbelaren melodiekin itxura berezia hartzen dute erabiltzen den eskalagatik, esaldiak neurri ezberdinetakoak dira eta erritmoa neurri handi batean metrikatik urrun aritzen da».

Burruna izenekoa ere ezagutaraziko du Juan Mari Beltranek. Soinu-tresna hau *zurrunbera*, *furrufarra* eta bestelako ize-

Txanbela, burruna edo txirula ezagutzeko parada izanen da gaur Aurrera elkartearen

Euskal Herriko hainbat soinu-tresna ezagutzeko aukera izanen da gaur, arratsaldeko zortzietan, Aurrera elkartearen, Juan Mari Beltranen eskutik, UEMAREN Kultur Elejiraren egitarauaren barruan antolaturiko kontzertu didaktikoan.



Juan Mari Beltranek Euskal Herriko hainbat musika tresna tradizionalen erakustaldia egingen du gaur, 20:00etan, Aurrera elkartearen. ● EDURNE KOCH

nekin agertu ohi da gure kulturaren. «Soka batekin loturik, airean jirabiran eta bueltak ematen jartzen den taulatxo bat da, airea bibrarazten, eta horren eraginez, bere izenek adierazten duten bezala, burruna eginez», adierazi du musikari gipuzkoarrak. Toki batzuetan haur-jostailu gisa erabiltzen izan da, eta besteetan, animaliak ikaratzeko eta uxatzeko.

Bestalde, dultzaina eta gaita itxuraz berdintsuak izan arren, bereizi egin behar direla azpimarratu du Beltranek. «Bata baserritar ingurukoa da, eta beste kaletarra. Salbuespenak salbuespen, oro har, Gipuzkoako eta Bizkaiko dultzaina baserritar ingurukoa da, eta Nafarroan eta Araban kaletarra. Baserritar ingurukoek bertako dantza eta doinuak jotzen dituzte. Kaleta-

rrek, ordea, errepertorio zabalago eta akademikoago dute. Horrela, besteak beste, sonatak, polkak eta habanerak jotzen dituzte».

Txanbelaz, burrunaz, dultzainaz eta gaitaz aparte, ohikoagoak diren txalaparta, txistua eta albokaz ere gozatu ahal izanen da gaur Aurrera elkartearen.

→ Estibalitz Ortega

Bortziriak

Zirimolan kultur hamabortzaldia

AZKAINEN ALTXA LILI, B, E Txokoa, Etxalarko Altxata eta Sarako Gaztetxeak elkarrekin osatu dute, bertze urte batez, Zirimolan kultur hamabortzaldia lau herriotan. Aurten *Euskaraz erausian*, *eskuaraz solasean* lelopean, euskal hizkuntza izanen dute ardatz jardunaldiok.

Aste barruan hainbat hitzaldi egin ostean, saioek gaur izanen dute segida, Beran egingen diren hiru kontzertuekin. Lehendabizikoa arratseko 22:00etan izanen da, Bidaxka ostatuan, Iruñeko Kematzen hard-core taldearekin. 23:00etan, Zizka ostatuan, Berako Irats triki-pop taldeak dantzan paratuko ditu bertaratzen direnak, eta gauerditik aitzinera, Pui ostatuan, Ipar Euskal Herriko Kontuz taldea ariko da.


Gainerako ekitaldiak datorren astean egingen dira. Asteartean Sarako Herriko Etxean Koldo Zuazok *Euskararen osasuna* izanen du hizpide, eta ortziralean Azkaineko Biltokin zine arratsa prestatu dute. Hiru film labur ikusi ahal izanen dira bertan: Usoa (Maria Zamakola zuzendariarena), Auspo soina (Inaz Fernandezena) eta Bertzea (Safy Nebbourena).

Heldu den asteburuan bukatuko dira saioak. Larunbatean, abenduaren 1ean, Etxalarren bertso afaria egingen da, eta bertan honako hauek ariko dira: Xumai Murua, Miren Artetxe, Eneritz Zabaleta eta Joxe Juan Zubieta *Etxabe*. Igandean, berriz, Sarako Omordian Xirristi-Mirristi antzerki taldeak *Lamintegiko laminak* lana emanen du.

→ Jon Abril

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Atal gordin horiek

Nire gainean dudak estalki borobildunaren larruzalean —ni nagoen tokitik hiruzpalau zentimetrotara edo— norbait ari da bere esku-haurrak leun pausatzen. Esanen nuke (ez da lehenbiziko aldia, eta, beraz, badakit zerbait mintzo naizen sentsazio horri buruz) gizaseme baten eskuak ari direla, gora eta behera, nire espazio ortsua tolestean eta ferekatzen, tentuz eta arte handiz darabiltenak. Antzematen dut (gizona trebea baita ariketa horretan) bada-kiela zertan dabilen; badakiela, alegia, ni bizi naizen toki haragitsua samur oratzen eta laztanez jori betetzen. Eta pozik nago bolumen epel honetan bizitzeagatik. Hain da toki goxo eta esanahi askotarikoa emakumezkoaren bularra!

Bularrak izan dezakete dentsitate bat edo beste. Izan dai-

tezke arinak edo astunak, txikiak edo handiak. Ertainak ere badira, noski; eta, ertain horietako batean, esku-haur bildu baten barruan moldatzen den horietako batean, hain zuzen, egokitu zait nire egotea; han non nire nukleoa, zitoplasma eta kanpo-mintza hazi egin diren nire jabea hazi egin den bezalaxe.

Alabaina, konprenitu ezin ditzakedan arrazoiz biologiko zenbait tarteko, orain dela urtebete eskas-edo, neure kabuz hasi nintzen handitzen eta hedatzen, inongo kontrolik gabe. Bada, eta beste zelula sail handi batekin batera etorritz, konkortxo bat eratu genuen bularraren aitza, tumore bat osatzeraino.

Nire jabeak ez du oraindik gure berri jaso; baina, bi hilabe-

teren buruan, dutzatzen den bitartean-edo, nabaritu du, bularrak xaboiak igurzterakoan, hortxe egonen garela gu, konkortxo honetako bizidun mikroskopikook. Izua izuz joko du orduan sendagilearengana. Mamografia eta biopsia bat egingen diote, eta horri esker, jakinen du azkenik, ni eta nire antza daukaten gainerako zelulak, onberak edo gaiztoak ote garen; eskuineko bularra moztu beharko dioten ala ez. Bizitzen jarraituko duen ala ez.

Ez dakit zein den nire egitekoa, ez dakit zergatik aldatu behar izan dudak honela, zer dela-eta egiten diodan halako txarkeria nire eramailari. Edozein modutan, utz diezaiogun lasaian orain. Gozatzen segi dezala bere kidearekin; sumatzen ari bainaiz zerbait heze ari zaigula zurrupaka. Mihi bat dirudi.

Nire estalki bero, gordin eta esanahi askotarikoa trinkatu da honenbestez.

Ultzama • Garraio publikoa izateko borroka

Eskualdeko bost emakumek mugitu behar izan dute autobus zerbitzua berreskuratzeko

Garai batean La Ulzamarra autobusak egiten zuen ibilbidea Pamplonesa enpresak hartu zuen, baina, bezero gutxi zituela eta, zerbitzua desagertu zen. Orain hainbat ekimen egin behar izan dituzte dagokien zerbitzu hori berriz eduki ahal izateko.

ORAINDIK GOGORATZEN DU bertako jendeak La Ulzamarra erabiltzen zuenean; Arraizko Bentetatik ibilgailu bat, Basaburua ibarreko Beruetetik beste bat. Biek Lizason egiten zuten topo; han banaketa egiten zen: bat oso beteta baldin bazihoan jendea bestera pasatu. Iruñeko Santo Domingoko azokan saldu nahi zituzten oiloak, arrautzak eta letxugak hartu eta beste autobusera igotzen ziren helmugara lehenbailehen heltzeko. Batzuek ez zuten denborarik Iruñeraino joateko, eta autobus gidariari ematen zioten mandatu: «Aizak, ekarriko al didak josteko hari urdina eta dozena bat botoi?».

Zerbitzu handia eskaintzen zuen garai horietan. Batzuetan, hilkutzak Iruñetik ekartzeko ere erabiltzen zen. Halere, denbora pasatu ahala, gauzak erabat aldatu dira, 50 urte igaro ondoren normala den bezala. La Ulzamarra desagertu eta Pamplonesa enpresak hartu zuen ardura, baina, egun batetik bestera, inor

jabetu gabe, utzi egin zion ibilbide horiek egiteari. Eskualdean bizi den emakume talde bat konturatu zen hutsuneaz, seme-alabak Iruñean hasi zirenean ikasten, ez baitzegoen autobusik institutura joan eta etortzeko. Baina ez hori bakarrik. Edonork arratsaldez hiriburura joan nahi izanez gero, bere kabuz moldatu behar zuen.

Hori ikusita, udaletan eta Nafarroako Gobernuan galdezka hasi ziren. Talde horretako Rosana Machinek azaldu duenez, «sorgin gorpila izan da hau; jendeak ez zuen erabiltzen ez zegoelako zerbitzu on bat, eta udalak ez zuen hobetzen erraten zuelako biztanleek ez zutela erabiltzen». Nafarroako Gobernuak ez zien jaramonik egiten, eskualdeko udalak egin behar duelako eskaera edo kexa. Beraz, Udalera jo zuten presioa egin nahian. Machi-



Pamplonesak La Ulzamarra zaharraren lekukoa hartu du bigarrenez. ● OSKAR MONTERO

nen hitzetan, «udalak egin behar duena da mugitu, Nafarroako Gobernuko laguntza gehiago lortzeko eta hemen ez egoteko Erdi Aroan bezala zerbitzurik gabe; uler dezatela Ultzama Iruñea ondoan dagoen ibar bat dela eta zerbitzu horiek izan behar dituela».

Errentagarritasuna aztergai

Azkenean, etxez etxeko galde-tegi bat eta sinadura bilketa egin ondoren, lortu zuten udalak negoziatzea bai Pamplonesarekin bai Nafarroako Gobernuarekin.

Autobusa martxan dago jadanik. Dena den, gobernuaren diru laguntza hain urria izanik, Ultzamako Udalak gastu handia hartu du bere gain, eta hiru hilabeteko epea jarri du ikusteko ea biztanleek erabiltzen duten eta errentagarria ote den. Tarte ho-

rretan, emakume talde horrek ahal duen guztia eginen du ultzamarrak kontura daitezen behar-beharrezko zerbitzua dela eta arrunt baliagarria. Eskolan marrazki lehiaketa bat antolatu dute, eta autobusaren ibilbide eta ordutegiaren berri etxe guztietara helarazi dute.

Hauxe da Pamplonesak eskaintzen duen zerbitzua: Egutegia, 16:00etan abiatzen da autobusa, Gerendiain herritik; Zenotz, Iraizotz, Alkotz, Arraitz, Eltzaburu, Auza, Larrintzar eta Lizasotik pasatu ondoren, Iruñera joaten da. Itzulera 20:15ean egiten du, autobus geltokitik, jaiegunetan izan ezik. Dena den, jendeak ongi erantzuten baldin badu, ordutegi zabalago bat eskaintzeko aukera aztertuko dute.

→ Txari Eleta

Berri laburrak

Igande arratsaldean Osasunak 2-1 galdua zuen partidua telebistaren teletestuan. Handik bost minutura emaitzak berdin segitzen zuen adiskidearen telebistan. Beraz, pixka bat tristaturik etxerantz abiatu eta Supervivientes jarri genuen. Segituan, Kaki uhartetik kanporatua izan zela jakin genuen. «Jarri teletestua», esan nion Reginari, «ikus dezagun zertan dabilen Osasuna». Reginak, zintzo demonio, teletestua sakatu eta berriz ere galdu zutela ikusi genuen emaitzan (bukatua txantxalari batez lagundua). Kakik, bien bitartean, bere aitaren omenez hiru esaldi lotu nahian subjuntibatu batekin hasi eta esaldi guztiak lurrera erori zitzaizkion, «yo... yo... yo...» martitzen zuen bitartean.

Hurrengo egunean italiara klasesera joan nintzen. Aldameneko neskek futbitoan aritzen dela esan zidan. Nik igandean nire ilobatxo (sei urte?) futbitoan jolasten ikusi nuela esan nion: «Hamar minutuz egon nintzen eta bost gol jasoak zituzten jada. Dena den, aurrekoan 17-0 galdu zuten. Txapelketako txarrenak omen dira». «Gaxoa», erantzun zidan neskek. Handik ordu gutxitara Mazar-i-Sharif erori zen eta bi egun geroxeago Kabul bera. «Kabul erori egin da», esan nion Reginari. «Jooder!», erantzun zidan berak. Gero Jalalabad erori zen. «Jalalabad erori egin da», oihukatu nion Reginari sukaldetik. «Laletxe!», erantzun zidan berak. Egun horretantxe erretzeari uzteko liburu bat erosi nuen Auzolan zaharrean. Aurretik liburu honetatik oso gertu dauden Bigarren Gerrako liburuak miazten ibilia nintzen. Argazki dotore batean Rommel agertzen zen. Azeria, noski, basamortuan zegoen, zutik, kamerari begira, eskuak atzean bilduak, oso elegantea (nazien trajeak ederrak ziren gero!), bere atzetik karretera zerumugan desageritzen da. Bakar-bakarrik dago baina hortxe dago dena irudikatuta: ofentsibaren gasolina, asfaltoaren beroa, bataloi mekanizatuak, milaka motorren hotsa. Horrelako kasualitate batengatik arratsalde horretan zigarroei buruzko liburua irakurtzen ari nintzelarik nire azken zigarroa itzali nuenean Rommelen irudia nuen buruan. Gero Reginari esan nion: «Erretzearena utzi dut eta Kandahar erori da!». Hurrengo egunean Kandahar ez zela erori esan ziguten. Hurrengoan baietz. Hurrengoan ezetz. Eta horrela. Gaur arte. ●

Lehiaketa, beharraz konturatzeko

ULTZAMARAKO AUTOBUS ZERBITZUA LEHENGORATZEA LORTU DUTEN emakumeek hainbat ekimen abiatu dute, ultzamarrak kontura daitezen behar-beharrezko zerbitzua dutela autobusa. Ekimenen artean, 14-16 urteko gazteei zuzendutako lehiaketa antolatu dute. Gaia, garraio publikoa da, autobusa. Hori ardatz hartuta, marrazkiak, eskulturak, argazkiak eta nahi dutena egin dezakete gazteek. Lan guztiekin erakusketa bat paratuko dute. Rosana Machin antolatzaileak azaldu duenez, «adin horretako gazteak aukeratu ditugu gauza gehienez paso egiten dutelako; ea mugitzen diren zerbaitean, hau lortzeko edo ibar honetan behar diren gauza aunitz lortzeko». Dagoeneko, has daitezke gazteak haien lanak prestatzen, sari banaketa Eguberri aldera izanen da eta.




Ikusi gabe begira

Eguneroko begirada.

Komunean dutxatik atera eta gero, logelan janterakotan, sarreran kalera atera baino lehen, igogailuan bidaidetik egokitzen ez zaidanean, kotxean atzerako ispilua behar den tokian kokatzen dudanean, Unzun musika tresnen apalategi distiratsuaren aitzinean bakarririk geratzen naizenean, kafetegiko komunean maskuria hustu eta eskuak garbitzen ditudanean, etxeko komunean bazkaldu aurretik gauza bera egiten dudanean, toki berean bazkaldu ondoren hortz eskuila dantzan ari denean, Monte Carlo barran Samuelek kuba-librea zerbitzatzeko zain nagoenean... Egunero hamaika bider begiratzen diot ispiluari neure buruaren isla behin ere ikusi gabe.

Ezohiko begirada.

Larunbat gauean seme-alabek amonarenean lo egin zuten, eta emazteak eta biok lagun batzuenen afaldu genuen, hain zuzen ere enkantean saldu behar duten foru lehendakari ohi **Gabriel Urralburu** eta arte tratulari ohi **Olivia Baldaren** etxearen atari berean —justizia tanton zenbait badira munduan. Nolanahi ere, nik sosak **Miguel Sanzen** Corellako etxea enkantean saltzen dutenerako gordeko ditut—. Etxe dotorean topatu genuena,



Gabriel Urralburu, Nafarroako lehendakari ohi.



Mozkorra etxeko igogailuko ispiluan.

ahantzitakoen inguruko solasaldiak —gogoratzen hau, hori, hura?—, ahanzteko moduko jakiak —entsalada bitxiak, haragi gordinegiak—, eta edari ahanztezinak. Edariak, jakina, guk eraman genituen: 1996ko Viña Alcorta botila bi eta duela hamaika urteko Matusalen ron botila bakarra. Zehar-kaltea —*daño colateral* gatzik eta piperrik gabeko euskaraz, Elhuyarren arabera— aurreikusgarria bezain saihetsezina:

biharamunean, biharamuna, aspaldiko, oso aspaldiko partez.

Begirada zamatua. Igande goizean esnatu eta altxatzen saiatu nintzelarik, erdibidean gératu behar izan nuen, eserita, zutitu gabe, Afganistanen haurrak erailtzen —**Patxi Zabaleta, Andres Iñigo**, beste edozein Euskaltzaindikorik irakurleen artean badago, harentzako galdera: zergatik ez du 'h'

hizkirik *erail* hitzak logikoena hala izatea badirudi?— ari diren B-52 bonbaketari horietako bat —hegazkin estatubatuarron jarduera kriminalaren salaketa inoizko futbol jokalaririk hobereenak, **Diego Armando Maradonak** egina da. **Andres Calamarok** abesteñ duenez, Maradona ez da edozein tipo—kasko barruan jiraka eta bueltak sentitu bainuen —zalantza izpirik gabe sasoi literario ezin hobean segitzen dut: esaldi bakarrarekin paragrafo osoa osatzeko gai izan naiz; **Aingeru Epaltzaren** estiloa ez ezik, **Jon Alonso**rena ere neureganatzen ari naiz abiada bizian—.

Iltzatutako begirada.

Gauzak horrela, ohe ertzean eserita geratu nintzen, armairuko ispiluari so. Neure buruaren isla topatu nuen aurrez aurre. Begira geratu nintzaion. Harengan iltzatu nuen soa bost minutuz, ordu laurdenez, ordu erdiz. Hasieran ohikoa ikusi nuen: neure burua. Denbora pasatu ahala, baina, emeki-emeki xehetasun berriak antzeman nizkion ispiluko gizasemari: sudurzulo-uste baino zabalagoak, bekain espero baino soilagoak, bular oroitubaino iletsuagoa, kupel gogoratu baino bigunagoa, asimetria ezezagunak... Azkenean, ezezaguna zitzaidan ispiluan nekusan hura. Seguru asko, zutabe sasi-poetiko hau idatzi duen bera izan zen.



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

Zurikaldai (I)

Iruñeak, XX. mendean, jende xelebriker eman baldin badu, Zurikaldai izan da horietako bat, hots, loteria saltzetik eta zapatak garbitzetik bizi zen bihotz oneko gizon luzea, bizkar okerra eta konkorr handia. Bere munduaren lau mugak Martzeliano, Bungalés, Ultzama eta Bar Espejo tabernak ziren, eta, txoko min horietan zehar, herrestan eramaten zuen bere gorputza, purua beti ezpainetan.

Zurika Nabarrerria plazatik gora sortu zen, 1924an, baina gurasoek eman izena haxe zen: Miguel Jeronimo Goñi Goñi. Hamasei urtetan, Zapateria Taurina izenekoa zabaldu zuen Karmen karrikako etxabe ziztrin batean. Bezerorik onenak zezenezaleak ziren, eta, sanferminetan, aldiz, Manolete toreatzailea. Zapatarri negozioak porrot eginik, ordea, fraide sartu

zen Miranda de Ebroko komentu batean. Denbora puska batez, Fray Jeronimo izan zen, anaia legoa, sukaldeko laguntzailea. Halako batean, meningitisak erditik jo eta errotik makurrarazi zuen mutil handi hura. Iruñera ekarrita, hiltzorian egon ondoren, sendatu eta, urte eta erdi geroago, berriz ere Nabarrerriako zola zapaldu zuen, hori bai, bizkar gaina konkortuxea eta makuluek lagunduta. Hala ere, 1949ko entzierro batean, Santo Domingoko aldapan arraildua egokituta, sekulako lasterraldiak egin omen zituen makulurik gabe Udaletxe plazaraino, zezen lepabeltzaren hats beroa sumatu orduko.

1950eko martxoan, berriz ere gaitzak gogor jo eta karrikotxe pedaldunean mugitu behar izan zuen. Garai hartan, Martzeliano etxean txikiteoan ari zela, eza-



Erdian, Miguel Jeronimo Goñi Goñi, Zurikaldai.

gun batek lan bat proposatu zion, hots, zapata garbitzaile izatea eta Martzeliano-nagusiak, Matias Anozek, honela onetsi zuen proposamen hura: «*Miguel, hemendik goiti Zurikaldai izanen haiz, Zurikaldai, zapata-garbitzaile diplomatua*».

Adinez aurrera joan ahala, bizkar gai-

neko ttontorra handitzen joan zitzaion, ia buruaren atzeko aldetik agertzearino, eta, hara, erabat okertua, baina gauza izan zen bi hanken gainean ibiltzeko (Lurdako Ama Birjinaren miraria ote? *Zurika* haraino joan baitzen, baina pasadizo xeble hori, irri-garria benetan, datorren asteko *Nafarkarian* agertuko da): Dotore janzten zen, txaleko beltza beti, orrazkera berezia eta guzti, Iruñea hartan bertze inork ez zeramana: alde banatan kalpar motz-motza eta kasko gain-gainean ile-gandorra. «*Kanpotik itsusia nauk, bai, baina ni larrru gorritan ikusita, zerraldo eroriko zinteten*» erraten zuen, jendeak loteria erosi bidenabar konkorra ukitzen zion bitartean.

Txuspo Poyo ARTISTA

«Istorio txiki asko dago nire obretan»

• MIKEL SAIZ



ALTASUN JAI O BAINA NEW Yorken bizi da Txuspo Poyo, eta han egiten du lan. «Energia eta nahasketa handiko hiria» da New York, Poyoren hitzetan, eta horrek izan du eraginik bere artelanean. «Oraina etengabe berreraikitzen» ari dela dio.

■ **Etxera ekarri zaitu Nafarroako Ikus-entzunezkoen Sormen Jaialdiak; hemen ez dugu zure lanak maiz ikusteko aukera.**

Nik New Yorken egiten dut lan, batez ere, han dut nire estudioa eta han sortzen ditut nire proiektuak, baina azken hamar urteotan izan da nire obrak hemen ikusteko parada ere. Jaialdira ekarri ditudan lanetako batetik, adibidez, *Control* izenekoak, duela bi urteko jaialdian saria eskuratu zuen, eta Moises Perez de Albenizen galerian ere hainbat lan izan nituen duela hiru urte. Nire piezak ikusi ahal izan dira Bartzelonan edo Madrilen ere, eta Bilbon ere bai; Arte Ederretako Museoan piezabat dut, Arcorako egin nuena.

■ **Hamar urte daramatzazu New Yorken; nolako**

esperientzia izan da, maila pertsonalean eta profesionalean?

Hiriak duen gauzarik interesgarriena da, beste hiri asko bezala, oso basatia dela. Hau da, etengabe gatazka egoera batean bizi den hiria da, duen arkitekturagatik, batetik, eta arraza eta kulturen nahasketagatik, bestetik. Energia handiko hiria da, eta energia hori zabaldu egiten da. Gainera, inor ez da hangoa, eta denak dira hangoak, aldi berean. Hiri horretan beti duzu leku batetik besterako bidean zaren sentsazioa; mugimendua da nagusi, eta mugimendu horrek etengabeko sormena ekartzen du. Baina ez dakit orain zer gertatuko den, psikosi handia baitago irailaren 11ko erasoen ondotik.

■ **Han zinen gertatu zirenean?**

Bai. Une batez iruditu zitzaidan fikziozko egoera batean geundela denok, eta berehala, errealitatea agertu zen aurrean: hiri guztia erabat lur jota gelditu da. Horren ondorioa izanen da beste hiri askotan gertatzen dena, hau da, Poliziaren kontrola erabatekoa izanen dela; eta hori tristea da, New York baitzen Estatu Batuetan neurri batean denona zen hiri bakarra. Argi dago

garai berri baten hasieran gaudela.

■ **Artean ere eraginik izan du gertatutakoak?**

Berehalako ondorioa izan da galeriak hutsik gelditu direla. Artea, bestelako hainbat diziplina bezala, jarduera entretenigarritzat jotzen da, eta jendeak, ondorioz, gertatutakoa gertatu denez, ez du nahi horrelakoetan parte hartu, kontzientzia harra izanen duelakoan. Ni ez nago ados irakurketa horrekin, baina

«Iraileko erasoen ondorioa izanen da beste hiri askotan gertatzen dena, hau da, Poliziaren kontrola erabatekoa izanen dela; eta hori tristea da, New York baitzen Estatu Batuetan neurri batean denona zen hiri bakarra»

soslaia

Altsasun jaioa da Txuspo Poyo. Arte Ederretako ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen, eta haiek bukatzean, Torontora (Kanada) abiatu zen beka bati esker. Urtebete eman zuen han, eta Torontotik New Yorkera ailegatu zen.

New York du Poyok egin bizitoki eta lantoki. Han du estudioa eta han sortzen ditu bere proiektuak. Haiek aurkeztera itzultzen da Euskal Herrira, noizbehinka, bai eta familia bisitatzerara ere. Urbasan ematen ditu udak.

Bideoaren esparruan lan oparoa egin du Txuspo Poyok, baina ez da hori jorratu duen diziplina bakarra; argazkigintza, pintura eta beste ere landu ditu. Guztien arteko harremana azpimarratu du artistak, guztiak direlako egilearentzat nahi duena lortzeko tresna.

hori da gertatu dena. Galeriak, antzokiak... hutsik dira.

■ **Eragin handia izan du hamar urteotan New Yorken bizitakoak?**

Nik uste dut nire obretan ageri dela nire hemengo nortasunaren eta hango nortasunaren arteko borroka. Hori dela eta, etengabe oraina berreraikitzen ari naiz nire lanetan, dena dagoelako hankaz gora, dena dagoelako mugimenduan. Esparru horretan egiten dut nik lan.

■ **Bideo-sormenaren esparruan edizioak zuzentzat duen garrantzia azpimarratu izan duzu.**

Edizioan ematen diot erritmoa lanari, eta edizioan sortzen dut nahi dudana egitura; horregatik da hain garrantzitsua une hori niretzat.

■ **Hainbat istorioen artean bat aukeratzeko modua da?**

Ez, istorio bakarra ez. Nik uste dut nire obretan historia txiki asko egoten direla beste istorio zabalago baten barnean. Hasiera eta amaierarik gabeko lanak dira; egoerak aurkezten ditut, eta haien artean, batzuetan, harremanak sortzen dira, bata bestearekin lotzen da.

■ **Zinemaren eragina nabaria da zure obran; *Honkey Monkey Town-en 2001, a space odyssey* filma hartu duzu ardatz; zinemaren ere egin duzu lan. Zer eman dizu esperientzia horrek?**

Zinemaren zuzendaritza artistikoan egin dut lan, eta horretatik jaso dudana da dekoratuaren ideia. Nik uste dut hori dela nire piezetan egin dudana, etxeko dekoratu edo platoak. Objektuak nik neuk egin ditut, eta horrek intimitate puska bilakatzen ditu.

→ **Edure Elizondo**



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Erdi bete

Euskararen kontrakoak etenik ez duela izanzen gero eta argiago dago. Agintari txit gorenen irudimenak mugarik ez duenez, beti izaten dira prest maltzurkeria berria asmatzeko, lotsa ere aspaldian galduta. Eta ekaitzaren erdian, euskal jendea, biraorik botatzen ez duen horixe bera, fededun porrokatua omen dena, burumakur ibiltzen da noraezean. Triste. Erauntsiari nola aurre egin asmatu gabe. Tarteka biraoka (gaztelaraz jakina). Baina triste.

Ene, ene. Gora bihotzak. Aurreko batean ni baino adinduago den lagun batekin mintzatu nintzen (ez zaio adinarena aipatzea gustatzen, baina tira...) eta ni baino esperientziadunago denez (nahiz eta halakorik gogoraraztea ez gustatu), orain dela hogeitaz euskararen ingurukoak nola zeuden ekarri zuen gogora. «Ez zegoen deus, dena inprobisatu egiten zen. Euskaldunok guztiz biluzik ginen». Eta hamaika adibide eman.

Askotan horrelako perspektiba hartzea ongi dago, batez ere gazteagoak garenontzat, bestela alderdi negatiboekin itotzen gara eta dugunari ez diogu behar bezalako baliorik ematen. Neurria hartzea zaila da; gauza jakina da Nafarroako euskaldunok minimoen azpian mugitzen garela, baina urte hauetan guztietan egin duguna ez genuke ahaztu behar. Bai, ordea, gehiago baloratu eta maitatu. Botatako izerdi piloa hor dago, eta etengabeko erasoek ez dute gure ikusmira lausotu behar.

Lurralde osoan sortu eta sendotu diren ikastolak, D ereduko matrikulen etengabeko hazkundera, auzo eta herri guztietan euskaldunok diren helduak, perretxikoak bezala agertzen diren euskara taldeak, euskal musika eta literatura modernoak, internauta euskaldunak edo esku artean dituzun gehigarria eta egunkari hauek. Eta ahaztu ditudan beste hamaika kontu. Horren guztiaren atzean lege, dekretu eta gobernuak baino errotuago dagoen zerbait da: Nafarroako euskaltzaleen burugogorkeria (-tasuna), eta botila hori, ahalegindu arren, ezin izanzen dute inoiz hustu.

gure aukerak

MUSIKA

- ▀ **Aribe:** Mikel Urdangarinek kantaldia eskainiko du bihar Juntetxean, 20:30ean.
- ▀ **Barañain:** XX. urteurrenaren kariatara, kontzertua emango du bihar Barañain abesbatzak udaletxean, 20:30ean.
- ▀ **Elizondo:** Ufestuek rockarrollin taldeak Antxitonea trinketeian joko du bihar.

BERTSOLARIAK

- ▀ **Angelu:** Gaur, 19:00etan, Mizel Mateo, Patxi Iriart, Ekhi Erremundegi eta Gillen Hiribarren ariko dira Carrefour saltokian.
- ▀ **Hendaia:** Igandean txapelketa nagusiko laugarren finalurrea jokatu dute Beltzenia pilotalekuan, 16:30ean. Aritz Lopategi, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jokin Sorozabal, Aitor Sarriegi eta Unai Agirre ariko dira bertsotan.

ANTZERKIA

- ▀ **Etxarri-Aranatz:** TEN Pinpilinpauza taldeak *Ostadarraren sorrera* helduentzako lana antzeztuko du gaur, 22:00etan, kultur etxean.
- ▀ **Iruñea:** Bihar, 12:00etan, Zirkio Txipia taldeak *Hiruak the bizkia family* haurrentzako lana taularatuko du Gaiarre antzokian.
- ▀ **Etxarri-Aranatz:** *Ahatetxo itsusia* haurrentzako lana emango du Lamixine taldeak bihar, 18:00etan, kultur etxean.
- ▀ **Iruñea:** Vaiven taldeak *Lotsa*

Gabe lana antzeztuko du asteartean, 20:30ean, Nafarroako Antzerki Eskolan.

HITZALDIAK

- ▀ **Bera:** Nafarroako euskarazko kultur produkzioaren gaineko zikloaren barruan, herri komunikabideen ikuspegia emanen dute gaur, 18:30ean, Jamotenean. Ttipi-ttapa fundazioko, Xorroxin irratiko, Xaloe telebista eta Euskalerrria irratiko ordezkari bana izanen da mahai-inguruan.
- ▀ **Iruñea:** Martxelo Otamendi kazetariak, Iosu Chueca historialariak, Pepin Arraiza abokatuak eta I. Otxoa de Olza idazleak Jurramendiko 1976ko gertaeren gaineko mahai-ingurua egingen dute bihar, 19:00etan, Larraona ikastetxe nagusian.
- ▀ **Altsasu:** Elikadura arazoei buruzko jardunaldiak egingen dituzte astelehen eta asteartean Gure Etxean, 18:30ean.
- ▀ **Zangoza:** Amnesty Internationaleko Fernando Armendarizek eta Greenpeaceko Carlos Bravok giza eskubideen adierazpen unibertsala eta Afganistango gerra izanzen dituzte mintzagai ostegunean, 20:30ean, kultur etxean.

ERAKUSKETAK

- ▀ **Iruñea:** Orreaga elkartearen *Nafarroa aurkitzen* erakusketa gaur zabalduko dute Aldezar euskaltegian, 19:00etan. Erakusketa abenduaren 2a arte izanen da ikusgai, lanegunetan 18:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

IKASTAROAK

- ▀ **Olazti:** Bihar, haurrentzako magia ikastaroa emanen du Sum magoak ludotekan. 16:30ean 5-7 urte bitartekoendako eta 17:30ean 7 urtetik goitikoendako.

nen du Sum magoak ludotekan. 16:30ean 5-7 urte bitartekoendako eta 17:30ean 7 urtetik goitikoendako.

BESTELAKOAK

- ▀ **Iruñea:** Bihar, 18:30ean, herri meza emanen dute euskaraz Iturramako Corpus Christi parrokian.
- ▀ **Iruñea:** Abesbatza taldea sortzeko asmoz, Iruñezar euskaltegian biltzen dira asteazkenean, 20:00etan (948-220824).

UDAZKENEKO ESKOLAK 2001

IRITSI DA BOSGARREN BOTEREA
azaroak 23, 24 eta 25 / ORION

GAZTE HIZKERIA ETA ARGOTAK
azaroak 14 / 19:00etan
Iruñako Gazteriaren Etxea


GIZARTE HIESA
azaroak 26, 27, eta 28 / 17:00-21:00
HIESaren Aurkako Batzorde Hiritarrean.

OSASUN BITARTEKARIEN ELKARTZEA
abenduak 1 eta 2 / Tuterako aterpean

AFEKTIBITATE ETA SEXU HEZKUNTZARAKO TREBAKUNTZA IKASTAROA
azaroak 12, 19, 21 eta 26 / ANDRAIZEn

INFORMAZIORAKO:
Zangoza k.30 p.k.:31005 IRUÑEA
TEL:948-234819 / FAX.:948-245627

ANTOLATZAILEA:



CAJA RURAL DE NAVARRA

Egunkaria